

EROSKI-K BI MILIOI EURO INBERTITU DITU DENDETAN BERE EHUN ETA OINETAKOEN MODELO BERRIA ATERATZEKO

- **Sail berriak 5.000 erreferentzia izango ditu, eta sasoi batetik bestera aldatu egingo da**
- **Kooperatibak 35 hipermerkatutan du dagoeneko marka berria, eta guztira 15.000 metro koadrotan ipiniko du eskaintza berria**

Elorrio, 2019ko urriaren 10a.- [EROSKI](#)k merkatura atera du bere ehun eta oinetako en modelo berria. Kooperatibak lankidetzaz hitzarmen bat egin du Sonaerekin, retail-en talderik handienetako bat Portugalen, zeinak mundu osoko 74 herrialdetan jarduten duen. Hala, kooperatibak bere modako marka berri du, "MO" marka izen berria hartuta, eta familia osoarentzako izango da, gaurkotasan handiko irudi batekin eta oso prezio honetan.

EROSKI 35 hipermerkatutan ipini du ehun sail berria, zeinetan bi milioi euroko inbertsioa egin baitu. Bilduma berriak 15.000 metro koadro beteko ditu, eta beste %20 hartuko du modako ehunen atalean, non altzariek eta argiztapenak berrikuntza sakona izan duten. Bezeroek arreta pertsonala jaso dezaten, 130 langilek prestakuntza espezifiko jaso dute.

Bildumak 5.000 erreferentzia izango ditu kanpaina bakoitzean, eta lau astean behin berri izango da. Bezeroek arropak, oinetakoak eta osagarriak aurkituko dituzte, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, bai helduentzat, bai haurrentzat eta bai haurtxoentzat. Portugalgo Sona konpainiak, Portugalgo retail-en talderik handienetakoak, 54.000 langile kolaboratzaile ditu eta 5.951 milioi euroko negozio zifra izan zuen 2018an. Hala, bera arduratuko da bildumak diseinatu eta fabrikatzeaz. Oso sorta zabala eskainiko du, bildumak bere diseinu talde zabalak landuta. Gainera, aurrezteko modua emango du kategoria guztietan.

"Gaur egungo emakumean eta haren familian inspiratuta dagoen marka da MO, eta gure xedea da bezeroei estiloa duten produktuak eskaintzea, proposamen

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



gaurkotuen bidez eta modako joeren barruan", azaldu du Elikadura Ez den sail komertzialeko zuzendariak, EROSKIko Luciano Reguerak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)